



EUSKADIKO GAZTEEN ENPLEGUA ETA EMANTZIPAZIOA 2011-2013 ALDIAN



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Gazteria eta Kirol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Juventud y Deportes



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

AURKIBIDEA

Izenburua:
Euskadiko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2011-2013 aldian

Gazteen Euskal Behatokiak egina

Ikerlariak:
Nieves Corcuera Bilbao, Oskar Longo Imatz
eta Miren Bilbao Gaztañaga

Itzulpena:
IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Diseinu grafikoa eta maketazioa:
ARANA Komunikazio eta Diseinua

Bilbo, 2014ko abendua



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira:
Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0 Unported
(<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

SARRERA	3
LABURPEN EXEKUTIBOA	4
ADIERAZLE GRAFIKOAK	13
1. ENPLEGUA	13
1. OKUPAZIO NAGUSIA ETA EGOERA EKONOMIKOA	14
1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak.....	19
1.2. Langabezian dauden gazteak	33
1.3. Emakumezko eta gizonezko gazteen arteko alde nagusiak	38
2. ENPLEGUARI BURUZKO JARRERAK	39
3. LABURPENA	42
2. ETXEBIZITZA ETA EMANTZIPAZIOA	43
1. ETXEBIZITZA-EMANTZIPAZIOA	44
1.1. Emantzipatutako gazteak	46
1.2. Emantzipatu gabeko gazteak.....	57
1.3. Emakumezko eta gizonezko gazteen arteko alde nagusiak	63
2. ETXEBIZITZA-EMANTZIPAZIOARI BURUZKO ZAILTASUNAK ETA BALIABIDEAK	64
3. LABURPENA	67
FITXA TEKNIKOA	68
DATUEN TAULAK KOLEKTIBOEN ARABERA.....	69
2013ko inkesta	70
2011ko inkesta	101

SARRERA

Euskadiko gazteen enpleguaren eta etxebizitza-emantzipazioaren errealitateari buruzko informazio erabilgarria emateko helburuarekin aurkeztu du Gazteen Euskal Behatokiak azterketa hau.

Hain garrantzitsuak diren bi gai horietan euskal gazteek bizi duten egoeraren berri izateko, 2013an etxetik egindako inkesta batean parte hartu zuten **18-34 urte** bitarteko 1800 gazte ingururen erantzunak hartu ditugu aintzat. 2011n egindako ikerketa bat ere badagoenez, adierazle gehienek bilakaera aztertu ahal izan da.

Adierazitako azterketak, beraz, bi urte horietako informazio alderatua eskaintzen du eta, horrez gain, gurasoen etxetik emantzipatzeko prozesuan gazteek aurkitzen duten errealitatea, haien itxaropenak eta zailtasunak islatzen ditu.

Krisiaren ondorioz, kezka sozialetan lehena gaur egungo gazteek izango duten etorkizun ziurgabea da. Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa da modu independentean lan egin eta bizi direnen egoera aztertzea, baita enplegu bat edo etxebizitza bat eskuratu ezin izan dutenen zailtasunen berri ematea ere.

Ikerketari esker ateratako **emaitza nagusien laburpenarekin** batera –sarreraren ondoren aurkituko duzue–, txostenaren gorputzean, **bi bloketan banatutako adierazle grafikoak** kopuru handi bat dago. Lehenengo blokea okupazioari, enpleguari eta egoera ekonomikoari buruzkoa da; bigarrena, berriz, emantzipazioari eta etxebizitza-eskuratzeari buruzkoa. Azkenik, interesa duten pertsonen eskura jarri ditugu 2013an eta 2011n egindako inkesten emaitzak. Inkesta horiek sexuaren, adin-taldearen, bizi diren lurralde historikoaren eta egindako ikasketen arabera daude banatuta, eta hala egin zitekeen kasuetan, inkesta okupazio nagusiaren, gazteek hilero eskura izaten duten diru-kopuruaren, emantzipazioaren eta etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera ere banatu dira.

Bihotzez eskertzen dugu inkestei eskuzabaltasunez erantzun dieten gazteen lankidetzak.



Azterketa honek Euskadiko gazteen enpleguaren eta etxebizitza-emantzipazioaren errealitatearen argazki bat aurkezten du



ADIERAZLE GRAFIKOAK



2013AN ETA 2011N EGINDAKO INKESTEN EMAITZAK

- sexua
- adin taldeak
- lurralde historikoak
- bukatutako ikasketak
- okupazio nagusia
- hilero eskura duten diru-kopurua
- etxebizitza-emantzipazioa
- etxebizitzaren edukitze-erregimena

LABURPEN EXEKUTIBOA

Langabezia dauden gazteen kopurua igotzen ari da; hala ere, lana eta ikasketak dira 18 eta 34 urte bitarteko gazteen okupazio nagusia.


Gazteen okupazio nagusia lana da; hala ere, 2011tik 2013ra **jaitsi egin da lan egiten duten gazteen ehunekoa**, % 52,7tik % 45,2ra. Lanean diharduten gazte gutxiago egoteko arrazoiak, batetik, gazte langabe gehiago egotea da (% 19tik % 22,7ra igo da ehunekoa) eta, bestetik, ikasle gehiago egotea (% 25,2tik % 27,4ra igo da ehunekoa).

Ikasketak dira 18 eta 24 urte arteko gazteen okupazio nagusia (hamar gazetetik sei ikasleak dira); 25 urtetik aurrera, aldiz, ordaindutako lana. 25 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiek lan egiten dute batik bat, eta 30 eta 34 urte bitartekoen artean, berriz, hamarretik seik.

Gizonezko langabe gehiago daude (% 26,6) emakumezkoak baino (% 18,6). 30 eta 34 urte bitarteko hamar gizonezkotatik hiru langabeak dira eta adin-tarte horretako hamar emakumezkotatik bi. Hori dela eta, oso zaila edo ezinezkoa suertatzen zaie emantzipatzea.

Gazteek eskura izaten duten diru-kopurua ere jaitsi egin da 2011 urtearekiko, eta **gazteen erdiek hilean 600 euro baino gutxiago dituzte**. Lanak ere ez du behar adinako diru-sarrerarik bermatzen, lan egiten dutenen ia laurdenek hilean 600 euro baino gutxiago baitute.

Inkestari erantzun dioten **gazteen erdiek bakarrik jotzen dute beren burua ekonomikoki emantzipatutzat**, eta beren diru-sarrerekin edo bikotekidearen diru-sarrerekin bizi dira. Batik bat bikotekidearen diru-sarreretatik bizi den emakumezkoen ehunekoa gizonezkoena baino hiru aldiz handiagoa da, % 12,2 eta % 4,3, hurrenez hurren.



Aldi baterako lan eta lanaldi partzial gehiago dago, batez beste, mila euro inguruko soldatekin.

Gazteen enpleguaren azterketako emaitzek adierazten dute **kontratu mugagabeak jaitsi egin direla** 2011 eta 2013 artean. Kontratu mota hori duten gazteen ehunekoa ez da %50era iristen. Gazteen %35,1ek aldi baterako kontratua dauka, eta %11,5ek autonomoen erregimenean lan egiten du.

Lan egiten duten gazteen %72,9k lanaldi osoan egiten du, baina lanaldi partziala indarra hartzen ari da eta gazteen %27k egiten du lan lanaldi mota horretan. Egoera hori askoz ere ohikoagoa da emakumezkoen artean. Lanaldi osoko lan bat topatzeko zailtasuna da arrazoi nagusia. Lanaldi partziala aukeratzeko garaian, familiako betebeharrak gehiago baldintzatzen dituzte emakumezkoak. Bestetik, lanaldi osoan lan egiten dutenen artetik laurdenek astean 40 orduetik gora egiten dute lan.

Batez besteko soldata garbi deklaratu hilean 1113,15 eurokoa da, eta ez da inolako aldakuntzarik egon 2011. urtetik. Lanaldi partzialean lan egiten duten gazteen batez besteko soldata 671,40 eurokoa da, eta 1280,50 eurokoa, berriz, lanaldi osoan lan egiten dutenena. Emakumezkoek gizonetzkoen baino 200 euro gutxiago irabazten dituzte, batez beste.

Gazteen hiru laurdenek enpresa pribatuan egiten dute lan; hamarretik batek bakarrik egiten du lan administrazio publikoan. Gazte gehienek bilaketa pertsonalaren bidez edo ezagunen bitartez eskuratzen dute enplegua.

Lana dutenek kualifikatutzat eta interesgarritzat jotzen dute beren lana kasu gehienetan; hala ere, lan egiten dutenetatik laurdenek uste dute beren prestakuntzatik beherako lana dutela. Hamarretik seik uste dute beren lana egonkorra dela, etorkizuna duela, eta

bat datorrela beren prestakuntzarekin; zehazki, prestakuntzarekin bat egiten duen enpleguaren portzentajea %58,2 da. Gazteen erdiek soilik uste dute beren lana ondo ordainduta dagoela.

Lanez aldatu nahi dutenen ehunekoak behera egin du 2011. urtearekin alderatuta (%42,5etik %31ra). Gehien aipatzen den arrazoia laneko baldintzak hobetzeko nahia da.

Enplegua galtzeko arriskuaren sentsazioak gora egin du, eta zabalduago dago emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino.



Langabezia handiagoa da ikasketa maila txikiagoa dutenen artean.

2011 eta 2013 artean, % 22,7raino igo da 18 eta 34 urte bitarteko gazte langabeen ehunekoa.

Zenbat eta ikasketa-maila handiagoa izan, orduan eta langabezia gutxiago, baina 2011 eta 2013 artean, langabeziaren igoerak bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak dituztenen artean izan du eragina. Derrigorrezko ikasketa-maila baino ez dutenen artean, %32,3koa da langabezia; bigarren mailako ikasketak edo goi-mailako ikasketak dituztenen artean, berriz, % 24,4 eta % 19,1ekoa da, hurrenez hurren.

Langabezian dauden hamar gaztetik lauk urtebetetik gora daramate egoera horretan (% 43,5). Iraupen luzeko langabeziak gehiago eragiten die gizonezkoei eta derrigorrezko ikasketak eta bigarren mailakoak dituztenei.

Langabezian dauden gehienek ez dute langabeziagatiko diru-laguntzarik jasotzen (% 73,1). Diru-laguntzaren bat kobratzen dutenen kopurua % 26,9 da, eta hori gazteen % 6,5 izango litzateke.

Pesimismoak gora egin du enplegua lortzeko aukerei dagokienez. Lana bilatzen ari diren hamar gazte langabetik hiruk baino ez dute uste enplegua topa dezaketela sei hilabeteko epean.

+IKASKETAK



+LANGABEZIA

Lana topatzeko zailtasunak direla medio, lanarekiko aurreikuspenak jaitsi egiten dira eta ateak zabaltzen zaizkie emigratzeko edo autoenpleguan aritzeko aukerei.

Egoera horretan, gora egin du lanbidea aldatzeko prest dauden gazteen ehunekoak (%75,6), dagokien mailatik beheragoko kategoria profesionaleko lan bat onartzeko prest dauden ehunekoak (%61,6) eta duten prestakuntzari dagokion soldatatik beherako soldata onartzeko prest daudenenak (%56,5), batez ere, langabezian dauden gazteen artean.

Gainera, gazteen %42,7 **atzerriara joango litzateke lan egitera** lan interesgarriren bat eskainiko baliote; ehuneko hori apenas aldatu da 2011. urtearekiko. Munduko edozein tokitara emigratzeko prestago daude 30 urtetik beherako gazteak eta gizonezkoak.

Zertxobait gora egin du beren lanpostua sortzea planteatzen ari diren gazteen kopuruak, baina horrek ez du ekarri norberaren kontura lan egiten duten gazteen igoera handirik. Gazteen **%39,4k autoenpleguaren aukerari heltzea pentsatu du uneraren batean**, edo dagoeneko autonomo gisa lan egiten du, baina askok baztertzen dute ideia abian jarri aurretik, eta gazteen %5,8k bakarrik egiten du lan norbere kontura 2013an.

ATZERRIRA
JOANGO LITZATEKE
LAN EGITERA

%42,7

NORBERAREN
KONTURA LAN EGITEA
PENTSATU DU

%39,4




Gazteen erdiak baino gutxiago bizi dira emantzipatuta, eta gurasoen etxetik joaten diren gazteak, batez ere, bikotekidearekin batera emantzipatzen dira.

18 eta 34 urte bitarteko gazteen erdiak baino gutxiago bizi dira emantzipatuta (%48,1). Gizonezkoak baino gehiago emantzipatzen dira emakumezkoak (%42 eta %54,5, hurrenez hurren).

30 eta 34 urte bitarte dituzten gazteen %20 gurasoekin bizi da oraindik. Gazteak emantzipatzen diren batez besteko adinak (30 urte) sei urtetan gainditzen du inkestei erantzun zieten **gazteek emantzipatzeko adin idealtzat jotakoa (24 urte)**, eta lau urtetan Europar Batasuneko gazteak emantzipatzen diren batez besteko adina (26 urte).

Emantzipatzeko arrazoi nagusiak ezkontzea edo bikotekidearekin bizitzea eta emantzipatzeko gogoia izatea dira, nahiz eta biak ala biak jaitsi diren 2011. urtearekin alderatuta. Lehenengo arrazoia ohikoagoa da emakumezkoen artean; bigarrena, berriz, gizonezkoen artean. Lanagatik edo ikasketengatik emantzipatzen direnak gutxi dira, kopuruak zertxobait gora egin duen arren.

Gazte gehienak bikotekidearekin emantzipatzen dira. Emantzipatutako gazteen %44,5 bere bikotekidearekin bizi da, eta beste %25,9, aldiz, bikotekidearekin eta seme-alabekin. Bakarrik emantzipatzen diren gazteak gutxi dira, eta kopuruak, gainera, behera egin du, gazte emantzipatuen %15,7 izanik. Etxebizitza librea eskuratzeko kostuak asko zailtzen du gazte bakar batek emantzipazioak dakartzan gastu guztiak bere gain hartu ahal izatea.



Gazte emantzipatu gehiago dira etxea alokatzen dutenak erosten dutenak baino.


Alokairuan emantzipatzen diren gazteen kopurua handitu egin da, eta 2011n ohikoagoa zen jabetzako emantzipazio kopurua baino handiagoa izan da 2013an. Emantzipatutako gazteen erdiak (%49,4) alokairuan bizi dira. Alokatzeari ohikoagoa da gazteenen eta diru-sarrera gutxiago dituztenen artean.

Nolanahi ere, alokairuan bizi diren bost gaztetik batek aldi baterako egoeratzat jotzen du hori, etxebizitza bat erosi ahal izan artekoa.

Jabetzako zein alokatutako **etxebizitza babestu batean bizi diren gazteen ehunekoak gora egin du** %9,9tik (2011) %15,8ra arte (2013). Araban, emantzipatutako lau gaztetik bat etxebizitza babestu batean bizi da.

2011 eta 2013 artean, alokairu soziala askoz gehiago igo da jabetzako etxebizitza babestua baino. 2013. urtean, emantzipatutako gazteen %7,7 alokairu sozialean bizi da, 2011ko %3aren aldean, eta gazteen %8,1 jabetzako etxebizitza babestu batean, 2011ko %6,9aren aldean.

Araban, etxebizitza babestuaren jabetza alokairua baino ohikoagoa da. Gipuzkoan, berriz, alokatutako etxebizitza babestuaren ehunekoa handiagoa da, eta Bizkaian antzekoak dira bi ehunekoak.



Hipotekaren batez besteko gastua jaitsi egin da eta alokairuarena, berriz, igo. Emantzipatutako lau gaztetik batek zailtasunak dauzka etxebizitzaren gastuak ordaintzeko.

Jabetzako etxebizitza bat duten baina oraindik ordaintzen amaitu ez dutenen hipotekaren batez besteko zenbatekoa 666 eurotik 580 eurora jaitsi da. Alokairuan ordaintzen duten batez besteko errenta, ordea, 564 eurotik 602 eurora igo da.

Hipoteken gastua handiagoa da Gipuzkoan eta alokairu-errentarena Bizkaian.

Gazteek etxebizitzagatik hilero ordaindu beharreko **zenbatekoa asko aldatzen da etxebizitza askea edo babestua izan**, bereziki alokairuaren kasuan. Gazteek alokairu librean batez beste 662 euro ordaintzen dituzte hilean; babestuan, berriz, 318 euro. Beraz, 344 euroko aldea dago. Etxebizitza libre baten hileko batez besteko hipotekaren eta etxebizitza babestu baten hipotekaren artean 166 euroko aldea dago; izan ere, gazteek etxebizitza libre batengatik batez beste 615 euro ordaintzen dituzte hilean, eta etxebizitza babestu batengatik, aldiz, 449 euro.


Ohikoena etxebizitza bikotekidearekin erdi bana ordaintzea da; egoera horretan dago emantzipatutako gazteen %45,1. Jarraian, bakarrik ordaintzen dutenak daude (%22,6) eta, azkenik, etxebizitza osorik bikotekideak ordaintzen dutenen kasua (%14,9). Gazteen %8,7k pisukideekin partekatzen du ordainketa.

Bost etxebizitza-unitate gaztetik batek gainesfortzu ekonomikoa egin behar du; hau da, diru-sarreraren %40tik gora bideratzen ditu alokairua edo hipoteka ordaintzera.

Gainesfortzu ekonomikoaren adierazlea 2011koarekiko hobetu egin den arren, emantzipatutako gazteen %26,5ek dio **zailtasunak dituela etxebizitzako gastuei aurre egiteko** (hipotekaren eta alokairuaren gastuez gain, argiaren, uraren, komunitatearen eta antzerakoen gastuak). Gainera, gazteen heren batek urtebeteko epean zailtasunak izango dituela aurreikusten du.

Emantzipatutako gazteen %17,8k familiaren laguntza ekonomikoa jasotzen du, bai modu erregularrean (%6,9), bai une jakin batean (%10,9). Ehuneko hori pixka bat igo da 2011. urtearekin alderatuta.

ETXEBIZITZA-MOTAREN ARTEKO GASTU DESBERDINTASUNAK



ETXEBIZITZA UNITATEAK GAINESFORTZU EKONOMIKOAN



GASTUEI AURRE EGITEKO ZAILTASUNAK




Gazteen erdiak beren jatorrizko familiarekin bizi dira, hau da, ez daude emantzipatuta.

Oraindik gurasoen etxean bizi diren gazteen %57,4k hiru urteko epean emantzipatzea aurreikusten du.

Familiako etxebizitzan bizi diren gazteek nahiago dute etxebizitza alokatu erosi baino. Nahi edo lehentasun hori %18,4koa zen 2011. urtean, eta %44,2koa 2013an. Hala ere, gehiago dira jabetzako etxebizitza edukitzea nahiago luketen gazteak (%49,8). Alokairua hautatzeko arrazoi nagusia hipoteka bati ez lotzea da. Gipuzkoan gazteek nahiago dute alokairua, Araban edo Bizkaian baino.

Emantzipatu gabeko gazteen %22,9 familiaren etxetik kanpo bizi izan da inoiz, gehienak lagunekin edo ikasketetako edo laneko kideekin. Horietako heren bat ikasketak amaitu dituelako itzuli da bere jatorrizko etxera, baina %28,2 arrazoi ekonomikoengatik itzuli dira; bai lana galdu dutelako, bai etxebizitzako gastuei ezin dietelako aurre egin. Beraz, **gazteen %3,1 gurasoen etxera itzuli da krisiaren ondorioz, modu independentean bizi ondoren** (12 800 gazte, 2011n baino 2500 gehiago).




Gazteen % 6,4k etxebizitza publiko bat eskuratu du.

Emantzipatzeko zailtasun nagusia etxebizitzaren garestitzea da. Hori nabarmendu dute lau gaztetik hiruk. Diru-sarrera nahikoa ez dutela diotenak (% 66,5) eta kreditu bat lortzeko zailtasuna dutela diotenak (% 66) ere gehiengoa dira.

Etxebizitza merkeago bat lortu ahal izateko, 18 eta 34 urte arteko euskal gazteen herena izena emanda daude edo izena emanda egon dira etxebizitzarako zerbitzu publikoren batean. % 6,4k etxebizitza babestu bat lortu du eta % 2,4ri etxebizitzaren bat esleitu dioten arren, uko egin behar izan dio gastuari aurre egiteko ezintasunagatik.

Etxebizitza publiko bat esleitu zaien gazteen ehunekoa handiagoa da Araban (% 8,7) eta Gipuzkoan (% 8), Bizkaian baino (% 4,7).


Araban, 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 6,5ek uko egin behar izan diote etxebizitza babestu bati, ezin baitute ordaindu. Horrek adierazten du, etxebizitzaren prezioaz gain, badirela beste faktore batzuk; esaterako, diru-sarrera egonkorrik edo bankuaren mailegurik ez izatea, biak ala biak nahitaezkoak etxebizitza-emantzipazioa gauzatu ahal izateko.



ADIERAZLE GRAFIKOAK

I. ENPLEGUA




Enplegua**1. Okupazio nagusia eta egoera ekonomikoa****Okupazio nagusiaren bilakaera**

Lana da 18 eta 34 urte bitarteko gazteen okupazio nagusia, 2011tik 2013ra langabezia eta ikasleen kopurua igo diren arren.

Enplegua

1. Okupazio nagusia eta egoera ekonomikoa

Okupazio nagusia sexuaren eta adin-taldearen arabera




18 eta 24 urteko gazteen okupazio nagusia ikastea da, eta 25 urtetik aurrera, berriz, ordaindutako lana.

Langabeziak gehiago eragiten die gizonei emakumeei baino.

Enplegua

1. Okupazio nagusia eta egoera ekonomikoa

Hilero eskura duten diru-kopuruaren bilakaera




Gazteek 2011. urtean baino diru-kopuru txikiagoa dute hilero.

600 euro baino gehiago dituztenak ez dira erdira iristen.

Enplegua

1. Okupazio nagusia eta egoera ekonomikoa

Hilero duten diru-kopurua okupazio nagusiaren arabera




Lan egiten duten gazteen ia laurdenek hilero 600 euro baino gutxiago dituzte.

Enplegua

1. Okupazio nagusia eta egoera ekonomikoa

Emantzipazio ekonomikoa



Gazteen erdiak daude ekonomikoki emantzipatuta eta beren diru-sarrerekin edo bikotekidearen diru-sarrerekin bizi dira.


Batik bat bikotekidearen diru-sarreretatik bizi den emakumezkoen ehunekoa gizonezkoena baino hiru aldiz handiagoa da, % 12,2 eta % 4,3, hurrenez hurren.

Bilakaeraren arabera zertxobait egin du behera emantzipazio ekonomikoak.

Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak

Enpleguaren bilakaera adin-taldeen arabera




Adin-talde guztietan jaitsi da enplegua.

30 eta 34 urte bitarteko hamar gaztetik seik egiten dute lan; 25 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik bostek egiten dute lan, hau da, erdiak, eta 25 urtetik beherako hamar gaztetik bik egiten dute lan. Guztira, gazteen erdiek baino gutxiago egiten dute lan.

Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak

Gaur egungo enplegua eskuratzeko modua




Gazte gehienek **bilaketa pertsonalaren edo ezagunen bidez** eskuratu dituzte beren lanpostuak.

Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak

Antzintasuna gaur egungo enpleguan




Lan egiten duten gazteen erdiek hiru urtetik gora daramatzate gaur egungo enpleguan, eta ehuneko hori igo egin da 2011rekin alderatuta.

Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak

Kontratu mota




Jaitsi egin da lan-kontratu mugagabea. Lan egiten duten gazteen heren batek baino gehixeagok aldi baterako kontratua dauka.

Norberaren konturako lana igo egin da, eta 2013. urtean lanean ari diren gazteen % 11,5 izatera iritsi da.

Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak

Enpresa mota




Gehienek enpresa pribatuan egiten dute lan.

Enplegu bat dutenen %12,2k soilik egiten du lan administrazio publikoan.

Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak

Lanaldi mota




Zertxobait egin du gora lanaldi partzialak.

Lanaldi partzialean lan egiten duen 18-34 urteko emakumezkoen ehunekoa gizonetzkoena baino bi aldiz handiagoa da.

Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak

Lanaldi partzialean lan egiteko arrazoiak




Lanaldi osoko lanik ez aurkitzeagatik **lanaldi partzialean lan egiten dutenen ehunekoa handitu da.**

Familiako betebeharrak gehiago baldintzatzen dituzte emakumeak.

Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak

Asteko lanorduak




Lan egiten duten gazteen erdiak bakarrik daude astero 31-40 orduen tartean.

Gazteen % 18,1ek astero 40 orduetik gora egiten du lan.

Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak

Hileko soldata garbia



Batez besteko **soldata garbia 2011ko bera da ia-ia**, eta oso gutxigatik gaitzen ditu **1000 euroak**.


Lanaldi osoa dutenek batez beste 1280 euro irabazten dituzte hilean.

Emakumezkoen soldata gizonzkoenaren azpitik dago.

Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak

Prestakuntzaren eta enpleguaren arteko egokitasuna




Lau gaztetik batek bere prestakuntza-mailatik beheragoko lanpostua du. Aurrekoa gehiago gertatzen da emakumeen artean gizonen artean baino.

Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak

Enpleguaren balioespena



2011 2013

Lana dutenek kualifikatutzat eta interesgarritzat jotzen dute, gehienbat. Horretaz gain, hamarretik seirentzat egonkorra, etorkizun onekoa eta beren prestakuntza-profilarekiko egokia da.

Gazteen erdiek soilik uste dute beren lana ondo ordainduta dagoela.


Oinarria: Lanean dabiltzan gazteak

Banan-banan egindako galdera bakoitzari "oso" edo "nahikoa" erantzun dutenen gazteen ehunekoa

Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak

Enpleguaren balioespena, sexuaren arabera



Gizon gazteek emakume gazteek baino gehiago nabarmentzen dute beren lana egonkorra eta etorkizun onekoa dela.


Oinarria: Lanean dabiltzan gazteak

Banan-banan egindako galdera bakoitzari "oso" edo "nahikoa" erantzun dutenen gazteen ehunekoa

Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak


Lana aldatzeko nahia



Enplegua

1.1. Gazteen enpleguaren ezaugarriak

Enplegua galtzeko arriskua



Oinarria: Lanean dabiltzan gazteak

Urtebeteko epean enplegua galtzeko arriskuari buruzko ustea handitu egin da; lan egiten duten gazteen laurdenek uste dute hori.




Beldur handiagoa dute lanean ari diren gazteek langileria orokorrak* baino (% 20), batez ere neska gazteek.

*18 urteko eta gehiagoko biztanleria orokorrari dagokion datuaren iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (SV52)


Enplegua

1.2. Langabezian dauden gazteak

Gazte langabeak sexuaren arabera



Oinarria: 18 eta 34 urte bitarteko gazteak




Langabezia igo egin da eta gazteen % 22,7 dago egoera horretan.

Gizonezko langabe gehiago daude emakumezkoak baino.

Enplegua


1.2. Langabezian dauden gazteak

Langabezian dauden gazteak, amaitutako ikasketen arabera



Oinarria: 18 eta 34 urte bitarteko gazteak

Zenbat eta ikasketa-maila handiagoa, orduan eta langabezia gutxiago. Hala ere, 2011 eta 2013 artean, igo egin da langabezia bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak dituzten gazteen artean.

Enplegua**1.2. Langabezian dauden gazteak****Langabeziagatiko diru-laguntza**

Langabezian egonda inolako langabeziagatiko diru-laguntzarik ez duten **18 eta 34 urte bitarteko** biztanleen ehunekoa **handitu da**.

Enplegua

1.2. Langabezian dauden gazteak

Langabezian emandako denbora




Iraupen luzeko langabezia-egoeran daude hamar gazte langabetik lau, eta kopurua handiagoa da gizonezkoen eta derrigorrezko nahiz bigarren mailako ikasketak dituztenen artean.

Enplegua

1.2. Langabezian dauden gazteak

Sei hilabeteko epean enplegua aurkitzeko probabilitatea



Pesimismoak gora egin du enplegua lortzeko aukerei dagokienez. Azken hiru hilabeteetan enplegu bat bilatzen aritu diren hamar gazte langabetik hiruk bakarrik uste dute lana aurkituko dutela.

Enplegua**1.3. Emakumezko eta gizonezko gazteen arteko alde nagusiak****EMAKUMEZKOAK**

- Lanaldi partzialeko lan gehiago
- Lana eta familia bateragarri egiteko ahalegin handiagoa
- Dagokien prestakuntzatik beherako lan gehiago
- Enplegua galtzeko arrisku handiagoa

**GIZONEZKOAK**


- Lan mugagabe gehiago
- Norberaren konturako lan gehiago
- Soldata handiagoa
- Langabezia handiagoa eta iraupen luzeko langabezia handiagoa



Enplegua

2. Enpleguari buruzko jarrerak

Autoenplegurako prestasuna




Gora egin du beren lanpostua sortzeko aukera aztertzen ari diren gazteen kopuruak, baina horrek ez du ekarri norberaren kontura lan egiten duten gazteen igoera handirik.

Autoenplegurako joera txikiagoa da emakumezkoen kasuan gizonezkoen kasuan baino.

Enplegua

2. Enpleguari buruzko jarrerak

Mugikortasun geografikorako prestasuna



Hamar gaztetik lau atzerrira joango lirateke lan interesgarriren bat eskainiko baliete.


Munduko edozein tokitara joateko prestasuna handiagoa da 30 urtetik beherakoen eta gizonezkoen artean.

Enplegua

2. Enpleguari buruzko jarrerak

Lanarekiko itxaropenak jaistea onartzea


Ikasten	% 74,8
Lanean	% 68,1
Langabezian	% 91,3



Lanbidea aldatzea

Banan-banan egindako galdera bakoitzari emandako baiezkotza erantzunen ehunekoa

Ikasten	% 64,2
Lanean	% 49,7
Langabezian	% 80,4




Kategoria profesional baxuagoa onartzea

Oinarria: 18 eta 34 urte bitarteko gazteak

%	
2011	2013

Ikasten	% 62,0
Lanean	% 41,8
Langabezian	% 77,8



Prestakuntzari dagokionak baino diru-sarrera baxuagoak onartzea

Gazteen gehiengoa lana aldatzeko prest dago, baita dagokien prestakuntzatik beheragoko lanpostu bat eta beren prestakuntzari dagokion soldata baino txikiagoa onartzeko ere.

Prestasun hori handitu egin da 2011 eta 2013 artean eta, batez ere, langabezian dauden gazteen artean da nabarmena.

Enplegua**3. Laburpena**

- Lan egin duten gazteen ehunekoak behera egin du.
- Lan-kontratu mugagabea jaitsi egin da eta lanaldi partzialeko lana igo.
- Langabezian egonda langabeziagatiko diru-laguntzarik jasotzen ez duten gazteen kopurua igo da.
- Gazteek diru-kopuru gutxiago dute eskuragarri, soldatak (1000 euroak gutxigatik gaingitzen dituzte) egonkorak diren arren, lan egiten duten gazteen ehunekoa jaitsi eta langabezian egon eta diru-sarrerarik ez duten gazteen kopurua igo baita.
- Lan egiten duten gazteen artean gora egin du enplegua galtzeko arriskuak, eta behera lana aurkitzeko aukerek langabezian daudenen artean.
- Lan-baldintzetan murrizketaren bat onartuko luketen gazteen kopurua handitu da.

ADIERAZLE GRAFIKOAK


II. ETXEBIZITZA ETA EMANTZIPAZIOA



Etxebizitza eta emantzipazioa

1. Etxebizitza-emantzipazioa

Etxebizitza-emantzipazioaren bilakaera



Beren jatorrizko familiaz bestelako etxebizitza batean bizi diren gazteen ehunekoa zertxobait igo da.

Hala ere, gizonezkoen eta 30 urtetik beherakoen artean ez da % 50era iristen.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1. Etxebizitza-emantzipazioa

Emantzipatzeko adin ideala eta errealak




Emantzipatzeko adin ideala 24,3 urte da, egiazko adina (30 urte inguru) baino ia sei urte gutxiago.

Euskadiko gazteak Europako batez bestekoa baino lau urte beranduago emantzipatzen dira.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.1. Emantzipatutako gazteak

Emantzipatzeko arrazoiak



Emantzipatzeko arrazoi nagusiak **bikotekidearekin bizitzea eta independentzia izateko nahia** dira. Lehenengo arrazoia ohikoagoa da emakumezkoen artean; bigarrena, berriz, gizonezkoen artean.

Oso gutxi dira lanagatik edo ikasketengatik emantzipatzen direnak, kopuruak zertxobait gora egin duen arren.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.1. Emantzipatutako gazteak

Elkarbizitza mota




Emantzipatutako gazte gehienak bikotekidearekin bizi dira.

Bakarrik edo lagunekin bizitzea ohikoagoa da gizonezkoen artean; bikotekidearekin eta seme-alabekin bizitzea, berriz, emakumezkoen artean.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.1. Emantzipatutako gazteak

Etxebizitzaren edukitze-erregimena




Emantzipatutako gazteen erdiak alokatutako etxebizitza batean bizi dira, eta ehuneko hori igo egin da 2011. urtearekin alderatuta. Gainera, 2013. urtean, gainditu egin du jabetzako etxebizitza batean bizi diren gazteen ehunekoa.

Alokatzea ohikoagoa da 30 urtetik beherakoen eta diru-sarrerara gutxiago dituztenen artean.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.1. Emantzipatutako gazteak

Alokairuaren alde egiteko arrazoiak




Alokairuaren alde egiteko arrazoi nagusia **mailegu bati ez lotzea** da; hala ere, gazteen % 20k aldi baterako konponbidetzat jotzen du eta nahiago luke jabetzako etxebizitza bat izan.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.1. Emantzipatutako gazteak

Etxebizitza librea eta etxebizitza babestua




Emantzipatutako gazteen % 15,8 etxebizitza babestu batean bizi da, bai jabetzan bai alokairuan.

Arabari, emantzipatutako lau gaztetik bat.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.1. Emantzipatutako gazteak

Hipotekaren edo alokairuaren hileko batez besteko zenbatekoa




Batez besteko hipotekaren hileko zenbatekoa jaitsi egin da eta alokairuaren errentak gora egin du; azken hori hipotekaren batez besteko kostuaren gaineratik ezarri da 2013an.

Hipoteken gastua handiagoa da Gipuzkoan eta alokairu-errentarena Bizkaian.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.1. Emantzipatutako gazteak

Hipotekaren edo alokairuaren hileko batez besteko zenbatekoaren aldea etxebizitza librearen eta babestuaren artean



Alokatutako etxebizitza libre batean emantzipatu diren gazteek **etxebizitza sozial bat alokatu dutenen bikoitza** ordaintzen dute alokairua.


Hipoteken batez besteko zenbatekoaren kasuan, etxebizitza librearen eta babestuaren arteko aldea zertxobait txikiagoa da.

Oinarria: Erabat ordaindu gabeko jabetzako etxebizitza batean edo alokairuan bizi diren emantzipatutako gazteak

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.1. Emantzipatutako gazteak

Nork ordaintzen du hipoteka edo alokairua



Emantzipatutako gazteen gehiengoak bere gain hartzen du hipotekaren edo alokairu-errentaren ordainketa, eta ohikoena, bikotekidearekin erdi bana ordaintzea da.


Kontzeptu horretarako familiaren laguntza jasotzen dutenak oso gutxi dira.

Oinarria: Erabat ordaindu gabeko jabetzako etxebizitza batean edo alokairuan bizi diren emantzipatutako gazteak

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.1. Emantzipatutako gazteak

Etxebizitzaren hipoteka edo alokairua ordaintzeko esfortzu ekonomikoa



Emantzipatutako bost gaztetik batek gainesfortzu ekonomikoa egiten du, hau da, etxeko diru-sarrereren % 40 baino gehiago zuzentzen du alokairua edo hipoteka ordaintzera.

2011tik ia bost puntu jaitsi da adierazle hori.

Bizkaian, gainerako lurralde historikoetan baino handiagoa da ehunekoa.

Gainesfortzu ekonomikoa egiten duten emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.1. Emantzipatutako gazteak

Etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak

GAUR EGUN

**%26,5**

*18 urteko eta gehiagoko biztanleria: %12

Emantzipatutako gazteen laurden batek zailtasunak dauzka etxebizitzako gastuak ordaintzeko (hipoteka, alokairua, komunitateko gastuak, argia, ura, etab.). Biztanleria orokorrak baino bi aldiz gehiago.

URTE BATEN EPEAN

**%32,8**

* 18 urteko eta gehiagoko biztanleria: %19


Aurreikuspenen arabera, zailtasun handiagoa izango da urtebeteko epean (% 32,8), hau da, emantzipatutako gazteen herenaren kasuan.

*Oinarria: Emantzipatutako gazteak***18 urteko eta gehiagoko biztanleria orokorrari dagokion datuaren iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (Etxebizitza, 2013)*

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.1. Emantzipatutako gazteak

Familiaren laguntza ekonomikoa




Gazteen gehiengoak ez du familiaren inolako laguntza ekonomikorik jasotzen. Hala ere, zertxobait egin du gora modu erregularrean edo tarteka laguntza jasotzen dutenen ehunekoak (2013an % 17,8 eta 2011n % 13,8).

Familiaren laguntza gazteenek jasotzen dute gehien.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.2. Emantzipatu gabeko gazteak

Jatorrizko familiarekin bizi diren gazteak




EAEko gazteen erdiak jatorrizko familiarekin bizi dira. Ondorioz, EB28ko batez bestekotik gertu gaude.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.2. Emantzipatu gabeko gazteak

Aurretik emantzipatuta izandako gazteak




Emantzipatu gabeko gazteen % 22,9k adierazi du inoiz modu independentean bizi izan dela. Horretarako, formularik ohikoena lagunekin edo laneko zein ikasketetako kideekin etxebizitza partekatzea da.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.2. Emantzipatu gabeko gazteak

Jatorrizko etxera itzultzeko arrazoiak




Etxera itzuli diren gazteen laurden bat baino gehiago arrazoi ekonomikoak direla eta itzuli dira, bai lanik gabe gelditu direlako, bai ezin dietelako aurre egin etxebizitzako gastuei. Egoera horretan dago 18-34 urteko gazteen % 3,1.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.2. Emantzipatu gabeko gazteak

Hurrengo 3 urteetarako emantzipazio-aurreikuspena




Jatorrizko familiarekin bizi diren gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok hiru urteko epean emantzipatzea aurreikusten du. Ehuneko hori nabarmen handiagoa da lehenago emantzipatuta bizi izan direnen artean.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.2. Emantzipatu gabeko gazteak

Jabetzako edo alokairuko etxebizitza lehenestea




Nabarmen hasi da alokairuagatik zaletasuna emantzipatu gabeko gazteen artean, batez ere, Gipuzkoan, baita lehendik emantzipatuta bizi izan direnen artean ere.

Arrazoi nagusia hipoteka bati lotu nahi ez izatea da.

Etxebizitza eta emantzipazioa

1.2. Emantzipatu gabeko gazteak

Familiako gastuak ordaintzeko ekarpena egitea



Gurasoekin bizi diren gazteek familiako ekonomiari eginiko ekarpenak behera egin du.

2013an, emantzipatu gabeko gazteen % 22,6k ematen du dirua modu erregularrean.

Adinean gora egin ahala, handitu egiten da familiako ekonomiaren mantenuan laguntzen duten gazteen ehunekoa.

Emantzipazio-esperientzia baten ondoren familiaren etxera itzuli diren gazteek ekarpen handiagoa egiten dute.

Etxebizitza eta emantzipazioa**1.3. Emakumezko eta gizonezko gazteen arteko alde nagusiak**

- Gehiago emantzipatzen dira
- Gehiago emantzipatzen dira bikotekidearekin
- Bikotekidearekiko mendetasun ekonomiko handiagoa hipoteka edo alokairu-errenta ordaintzeko




- Gehiago emantzipatzen dira bakarrik edo lagunekin
- Gai nesfortzu ekonomiko txikiagoa hipoteka edo alokairu-errenta ordaintzeko

Etxebizitza eta emantzipazioa

2. Etxebizitza-emantzipazioari buruzko zailtasunak eta baliabideak

Norberak emantzipatzeko izandako zailtasunak




Emantzipatzeko garaian, gazteek dituzten **zailtasun nagusiak** etxebizitzaren garestitzea, diru-sarrera propioak izateko eta banku-maileguak lortzeko zailtasunak dira.

Zailtasun horiek gehiago nabarmentzen dituzte jatorrizko familiarekin bizi diren gazteak.

Etxebizitza eta emantzipazioa

2. Etxebizitza-emantzipazioari buruzko zailtasunak eta baliabideak

Etxebizitzako zerbitzu publikoetan izena ematea



Oinarria: 18 eta 34 urte bitarteko gazteak

Gazteen herenek etxebizitzako zerbitzu publiko batean eman dute izena uneren batean. %6,4k etxebizitza babestu bat lortu du, eta %2,4ri etxebizitzaren bat esleitu zaion arren, uko egin behar izan dio gastuari aurre egiteko ezintasunagatik.

Etxebizitza eta emantzipazioa

2. Etxebizitza-emantzipazioari buruzko zailtasunak eta baliabideak

Etxebizitzako zerbitzu publikoetan izena ematea, lurralde historikoaren arabera



	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Etxebizitza babestua du	%8,7	% 4,7	% 8,0
Tokatu zitzaion baina errefusatu egin behar izan zuen	% 6,5	% 1,4	% 2,0
Zozketa itxaroten	% 9,9	% 19,0	% 13,3
Desapuntatu zen ezer tokatu gabe	% 7,5	% 7,9	% 9,1
Izena emanda dago edo egon da	% 32,6	% 33,0	% 32,4
Ez du inoiz izena eman	% 64,2	% 65,4	% 65,3

Etxebizitzako zerbitzu publikoetan izena emandako gazteen ehunekoa antzekoa da hiru lurralde historikoetan.

Arabara, gazte gehiagori esleitu zaie etxebizitza bat; hala ere, horien erdiek ia uko egin diote etxebizitzari, gastuari ezin baitiote aurre egin.

Oinarria: 18 eta 34 urte bitarteko gazteak

Etxebizitza eta emantzipazioa**3. Laburpena**

- Emantzipazio-ehunekoa gazteen erdiaren inguruan dago oraindik ere, baina emantzipatzeko idealtzat jotako batez besteko adina (24 urte) baino sei urte geroago gertatzen da.
- Gazte gehienak bikotekidearekin emantzipatzen dira.
- Alokairuko emantzipazioa igo egin da eta gainditu egin du jabetzako etxebizitzako emantzipazioa.
- Hipoteken prezioa jaitsi egin da, baina gazteek ordaintzen dituzten alokairuak garestitu egin dira.
- Emantzipatutako bost gaztetik batek gainesfortzu ekonomikoa egin behar du hipoteka edo alokairua ordaindu ahal izateko, eta gazteen laurdenek hilabetearen amaierara iristeko zailtasunak dituztela aitortzen dute.
- Etxebizitza garestitu izana da emantzipatzeko zailtasun nagusia; horregatik, gazte askok etxebizitza babestu bat eskatzen dute, eta % 6,4k lortu du halako bat esleitzea.

FITXA TEKNIKOA



Erabilitako **metodologia** kuantitatiboa izan da eta, horretarako, elkarrizketa indibidualak egin zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Lurralde Historiko guztietako 18-34 urteko gazteen lagin adierazgarri bati



Elkarrizketak etxez etxe egin dira eta, horretarako, erantzun egituratu eta itxiak erabili dira galdera gehienetan. Beste galdera batzuetan, ordea, parte-hartzaileen erantzun ireki eta espontaneoak eskatu dira. Galde-sorta paperean egin da eta, laguntza gisa, txartelak erabili dira zenbait galdera formulatzeko. Elkarrizketak euskaraz edo gaztelaniaz egin dira, inkestari erantzun dioten gazteek eskatzen zuten hizkuntzaren arabera.



Inkestari erantzuteko pertsonen **hautapen-prozedura** fase anitzeko laginketarekin eta laginketa geruzatuarekin egin da. Batetik, ibilbide kopuru bat zehaztu da lurralde historiko bakoitzeko, eta inkestak egin behar ziren herrien hautapena lehenago ezarritako ibilbideen kopurura eta gazteen banaketara egokitu da, herrien tamainak kontuan izanik. Herri bakoitzean bisitatu beharreko etxebizitzak aukeratzeko, ibilbide bakoitzaren abiapuntu aleatorio bat nabarmendu da, eta ezarritako ibilbidea jarraitu da, txandakako ezkaratzetara joanda. Ezkaratz bakoitzeko solairu bakoitzean inkesta bat egiteko muga jarri da, eta hamar etxeko multzo bakoitzeko ezin zen inkesta bakar bat baino gehiago egin. Elkarrizketatu beharreko gazteen azken hautapena sexuaren, adinaren eta okupazio nagusiaren arabera mugatu da.

Guztira, 1.768 inkesta egin dira 2013an (451 Araban, 706 Bizkaian eta 611 Gipuzkoan) eta 2011. urtean 1.762 (442 Araban, 711 Bizkaian eta 609 Gipuzkoan).



Landa-lan hau egiteko **datak** 2013ko azaroaren 20tik 25era eta 2011ko azaroaren 14tik 25era izan dira.



Egotz daitekeen **lagin-errorea**, lagina erabat aleatorioa izan den kasu teorikoan, $\pm \% 2,3$ koa da EAEko gazteen artean, bai 2013an bai 2011n, konfiantza-maila $\% 95,5$ koa eta $p=q=0,5$.


Emaitzak haztatu egin dira lurralde historiko bakoitzeko biztanle gazteen banaketaren arabera eta aintzat harturiko adin-taldeetan duten banaketa errealearen arabera.



Ikerketaren **diseinua**, emaitzen **azterketa** eta **txostenaren** idazketa Gazteen Euskal Behatokiaren erabateko erantzukizuna dira.

Landa-lana, bestetik, Ikertalde Grupo Consultor enpresak egin du, Gazteen Euskal Behatokiak espresuki adierazitako jarraibideak jarraituta.

DATUEN TAULAK KOLEKTIBOEN ARABERA



OKUPAZIO NAGUSIA ETA EGOERA EKONOMIKOA												
OKUPAZIO NAGUSIA	GUZTIRA (%)	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			BUKATUTAKO IKASKETAK		
		Gizona	Emakumea	18-24	25-29	30-34	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Derrigorrezkoak	Derrigorrezkoen ondoko bigarren mailakoak	Goi-mailakoak
Ikasten	27,4	27,6	27,2	62,7	18,4	4,7	25,8	28,0	27,3	18,9	35,1	20,8
Lanean	45,2	44,0	46,4	19,2	51,7	62,1	43,9	43,2	49,5	30,7	35,5	58,2
Langabezian	22,7	26,6	18,6	15,8	25,1	26,5	23,8	25,4	17,1	32,3	24,4	19,1
Beste bat	4,7	1,7	7,8	2,3	4,7	6,7	6,5	3,4	6,1	18,0	5,0	1,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1768	884	884	568	600	600	451	706	611	139	849	779

Oinarria: 18 eta 34 urte bitarteko gazte guztiak

HILERO DUTEN DIRU-KOPURUA	GUZTIRA (%)	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			BUKATUTAKO IKASKETAK			OKUPAZIO NAGUSIA			
		Gizona	Emakumea	18-24	25-29	30-34	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Derrigorrezkoak	Derrigorrezkoen ondoko bigarren mailakoak	Goi-mailakoak	Ikasten	Lanean	Langabezian	Beste egoera batean
60 euro baino gutxiago	12,6	12,6	12,6	27,7	7,0	4,2	14,7	15,2	6,7	14,3	17,2	7,4	27,4	0,6	19,5	8,8
60 eta 300 euro artean	24,2	26,5	21,8	44,3	20,7	10,0	26,2	19,7	31,1	15,3	28,7	21,1	48,7	8,8	26,9	15,8
301 eta 600 euro artean	14,0	12,9	15,1	9,4	15,7	16,5	14,4	14,6	12,7	15,4	13,5	14,2	10,3	14,0	16,1	24,8
601 eta 900 euro artean	13,3	12,7	14,0	7,3	16,1	16,3	12,4	14,6	11,4	24,1	12,2	12,5	5,1	17,3	14,4	17,3
901 eta 1200 euro artean	12,6	11,3	13,9	3,2	16,6	17,4	14,1	11,5	13,8	8,9	10,7	15,3	1,8	21,5	7,9	12,6
1201 eta 1500 euro artean	7,2	7,9	6,4	2,1	6,3	12,2	6,9	6,8	8,1	8,3	4,6	9,7	1,0	13,0	3,1	7,2
1501 eta 2000 euro artean	4,1	4,1	4,0	0,5	3,9	7,2	3,9	4,0	4,3	2,3	2,2	6,4	0,0	8,0	1,6	1,8
2000 euro baino gehiago	2,3	2,3	2,2	0,4	2,0	4,0	1,8	2,4	2,3	0,5	1,4	3,5	0,5	4,5	0,4	0,0
Ed/Ee	9,8	9,6	9,9	5,1	11,8	12,1	5,6	11,2	9,6	10,9	9,6	9,8	5,1	12,2	10,1	11,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1768	884	884	568	600	600	451	706	611	139	849	779	494	796	388	90

Oinarria: 18 eta 34 urte bitarteko gazte guztiak

OKUPAZIO NAGUSIA ETA EGOERA EKONOMIKOA																
EMANTZIPAZIO EKONOMIKOA	GUZTIRA (%)	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			BUKATUTAKO IKASKETAK			OKUPAZIO NAGUSIA			
		Gizona	Emakumea	18-24	25-29	30-34	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Derrigorrezkoak	Derrigorrezkoen ondoko bigarren mailakoak	Goi-mailakoak	Ikasten	Lanean	Langabezian	Beste egoera batean
Zure jatorrizko familiaren (gurasoak, neba-arrebak...) diru-sarreretatik bizi zara nagusiki edo erabat	34,1	38,1	30,0	70,1	25,1	10,7	37,0	34,9	31,1	28,1	42,5	26,3	77,1	4,8	44,9	13,3
Zeure eta zure jatorrizko familiaren (gurasoak, neba-arrebak...) diru-sarreretatik erdiz erdi bizi zara	13,1	14,5	11,6	13,8	18,8	8,0	13,5	13,0	12,9	8,6	10,4	16,7	8,7	17,7	10,5	5,9
Zeure diru-sarreretatik bizi zara nagusiki edo erabat	27,8	30,3	25,1	8,9	31,4	40,9	27,0	28,0	27,7	27,4	25,4	30,4	6,5	48,1	16,7	10,0
Zeure bikotekidearen diru-sarreretatik bizi zara nagusiki edo erabat	8,2	4,3	12,2	2,3	9,0	12,5	8,4	7,3	9,7	14,9	8,7	6,4	3,2	4,7	12,1	52,0
Zeure eta zure bikotekidearen diru-sarreretatik erdiz erdi bizi zara	13,8	9,8	17,9	2,7	12,0	24,6	13,1	12,8	16,0	8,1	10,2	18,6	2,1	23,9	9,5	5,9
Beste egoera batean zaude	2,8	2,9	2,7	1,7	3,3	3,3	1,0	3,5	2,6	11,0	2,7	1,5	2,2	0,7	5,7	12,9
Ed/Ee	0,3	0,0	0,6	0,5	0,4	0,0	0,0	0,5	0,0	1,9	0,1	0,1	0,2	0,2	0,6	0,0
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1768	884	884	568	600	600	451	706	611	139	849	779	494	796	388	90

Oinarria: 18 eta 34 urte bitarteko gazte guztiak

LAN-ESPERIENTZIA

LAN-ESPERIENTZIA	GUZTIRA (%)	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			BUKATUTAKO IKASKETAK			OKUPAZIO NAGUSIA			
		Gizona	Emakumea	18-24	25-29	30-34	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Derrigorrezkoak	Derrigorrezkoen ondoko bigarren mailakoak	Goi-mailakoak	Ikasten	Lanean	Langabezian	Beste egoera batean
Bai	82,6	83,8	81,3	58,5	91,3	96,2	83,6	81,9	83,2	72,5	76,9	90,5	50,1	100,0	92,5	56,4
Ez	17,4	16,2	18,7	41,5	8,7	3,8	16,4	18,1	16,8	27,5	23,1	9,5	49,9	0,0	7,5	43,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
